# LAZKAO

| # 21 | 2021 EKAINA |

LAZKAOKO UDALA





#ETORKIZUNA




#Lazkaodutmaite





#hegoakharro







#FUTURO



#elkarlanean

#herrigintzan

*Elkarrizketa*



# KEPA ZUBIARRAIN

*Lazkaoko Alkatea*

## «Gure jardunaren erdigunean beti dago lazkaotarren ongizatea; bultzatzen ari garen proiektu guztiak herritarrei bizi kalitate ona eta aukerak eskaintzera daude bideratuta»

**Izendatu eta urtebetera, egunero-egunero alkate izaten ikasten ari zinela adierazi zenuen. Nola aurkitzen zara orain?**
Azken urtea ez da batere erraza izan, baina indartsu eta lazkaotarren alde lanean jarraitzeko oso gogotsu aurkitzen naiz. Erabaki zailak hartu behar izan ditugu Covid-19ari aurre egiteko, eta ziur guztian ez dugula asmatu, baina osasun egoera geroz eta hobea da, eta horrek gure Legealdi Planari abiadura ematea ahalbidetuko digu. Azken urtean lehentasuna herritarren ongizatearen bermea izan da %100ean, eta nahiz eta gure proiektuaren norantzak berbera izaten jarraitzen duen, lazkaotarrak babestera bideratu ditugu esfortzu guztiak. Pixkanaka, fokua berriz ere normaltasunera ekartzen ari gara, eta Lazkaoren etorkizuneko proiektuak ari gara bideratzen: sustapen ekonomikoa, irisgarritasuna, jasangarritasuna, gizarte zerbitzuak... guztia pertsona erdigunean kokatuz. Hori bai, legealdiko proiektu estrategikoak alde batera utzi gabe.

**Nolakoa da zure egunerokoa? Nola antolatzen zara lanean?**
Nire egunerokoa nahiko ezberdina izan ohi da egunaren arabera. Saiatzen nahiz bizitza pertsonala eta profesionala ahalik eta gehien uztartzen eta momentu oro baliatzen. Oso gizon familiarra naiz, eta aspektu hori asko zaintzen dut. Baina aldi berean, lazkaotarrekin 2019an hartu nuen konpromisoa betetzeko lanean ari gara guztiok, eta ari gara lortzen. Emandako hitza betetzen ari gara, eta hori dut helburu nagusi udal mailan. Lazkaotarra naiz, eta oso harro nago nire herriaz, eta hori mantentzeko dihardugu lanean, umiltasunetik eta herritarrekin elkarlanean eginez, guztion herria baita Lazkao.

**2019-23 Plangintza estrategikoa osatu zenuten legealdi hasieran. Zein puntutan aurkitzen da?**
Guztira 4 helburu estrategikoren baitan osatu genuen legealdi plana, 60 proiektu baino gehiagorekin. Ausartak izan ginen, baina norantza ona eman digu. Noski, Covid-19ak inflexio puntu bat ekarri du, eta legealdi planak ezarritako gida mantendu badugu ere, fokua birbideratu genuen 2020ko martxoan egoerari erantzuteko, eta orain, pixkanaka, egoerak hobera egin ahala, etorkizuneko Lazkao eraikitzeko proiektuetan murgildurik gaude buru belarri. Legealdi Planean jasotako proiektuak, legealdi erdian garen honetan, gauzatuak izan dira %60ko betetze mailaren bueltan eta besteak abian ditugu dagoe-

neko. Guztiak amaitzea zaila izango da legealdi amaierarako, asko urte anitzeko proiektuak baitira, inbertsio handikoak, esaterako Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren eraberritzea, Hiribarren-Ibabe industriagunearen berrurbanizazio lanen jarraipena,... . baina guztiak abian eta oso martxan onean izango ditugu.

**Bertan zehazten da herritarren ongizatea lehentasuna dela.**

Gure jardunaren erdigunean beti dago lazkaotarren ongizatea. Udalak horretarako egiten du lan, eta bultzatzen ari garen proiektu guztiak herritarrei bizi kalitate ona eta aukerak eskaintzera daude bideratuta. Gizarte babesa, bizitza duinaren bermea, eta alor orotan aukerak eskaintzea dira gure Legealdi Planaren oinarri. Herritarrengan inbertitzen dugu.

**Covid-19ak markatutako legealdi erdia izan da.**

Bai, ezbairik gabe. Esan bezala legealdia hasi eta hilabete gutxira pandemiak hartu gintuen, eta horrek neurri gogorrak hartzera behartu gaitu. Itxierarekin bat, herritarrei laguntzeko dinamikak eta zerbitzuak bultzatu genituen, eta baita, sektore ezberdinengan (ostalaritza, merkataritza...) pandemiak izan duen eragina arintzeko sustapen-neurriak. Babestu, mantendu eta sustatu. Horretan dihardugu. Hobeto gaude, eta hobeto egongo gara. Eskenatoki horretan ari gara lanean. Ilusioz eta esperantzaz eraiki behar dugu Lazkaoren etorkizuna.

**Maila ekonomikoan zein aurreikuspen duzue?**

Egoera hobetzen doa. Langabezia tasak, Lazkaon eta eskualdean, zerbait gora egin bazuen ere, eta pandemia aurreko enplegu datuetatik oso gertu gaude. Hala ere, sektoreak ukituak egon dira, bereziki ostalaritza edo merkataritza, eta lagundu dugu eta jarraituko dugu egiten. Orain, begi-bistan, gure ehun ekonomikoaren eraldaketarako aukerak ditugu, eta baliatzeko lanean gabiltza, sektore ezberdinekin elkarlanean. Honela, tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak babestu eta  indartzeko, erosketa bonoak, hobariak, Goierriko Azoka ekimenak gauzatu dira besteak beste, eta industria ertainei, ekintzailetza eta zerbitzuei zuzendutako, Berrabiarazi Industria programa onartu da:  Indargune eta Giginnova proiektuak, Nazioartekotza bultzatzeko formakuntza eta sentsibilizazio jardunaldiaK... Goiekirekin elkarlanean.

**Irisgarritasun lan ugari ari zarete burutzen ere?**

Herritarren irisgarritasuna bermatu nahi dugu, herri jasangarriagoa egin, eta aldi berean, esaterako, Ibabe-Hiribarrenen, enpresentzako ingurune erakargarri bat eskaini enplegu aukerak bultzatzeko. Ibabe-Hiribarren dugu abian orain, Mikelar eta Udal atzeko bidea laster hasiko ditugu, Santa Magdalena, San Prudentzio eta San Jose auzoetan ere berrikuntza eta egokitzapenak burutu dira, aurrez Elosegi Kalea egin genuen, eta beste hainbat lan lantzen ari gara. Herri irisgarri, jasangarria eta atsegina dugu jomuga.

**Herri jasangarriago baten alde egin nahi duzuela diozu**

Etorkizun berdea bultzatu nahi dugu. Udalaren Energia planaren barruan, LED argiterian eginiko inbertsio garrantzitsua egin da eta udal eraikinetan  eguzki panelen instalazioa aztertu eta erabakitzeko, proiektua abian du Udalak, 2022an gauzatu ahal izateko. Landa eremua ahaztu gabe: LED argiteriaren hedapena gauzatu dugu landa eremuan, Gaztaiñaundi, Izar baso eta Intxausti baserri guneetara iritsi delarik eta ur horniduran hobekuntzak ere burutu direlarik.

**Etorkizunera begira zein proiektu duzue eskuartean?**

Etorkizun hurbilean, Kanpandegiko industrialdea proiektu oso garrantzitsua da, 2021ean amaitzea aurreikusten da, eta herrian enpresak errotu eta kalitatezko enplegua sortzeko eremua izango da. Baita Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren eraberritzea ere, urte ezberdinetan banatuko dena eta 2022an hastea dugu helburu. Eta herriko Kultur azpiegituren azterketa (Kultur Etxea, liburutegia...) burutzea ere beharrezkoa ikusten dut lazkaotarren beharretara egokituz.

**Nolako Lazkao irudikatzen duzu legealdia amaitzerako?**

Legealdi amaieran lau urtetan zehar egindako lanaz harro sentitu nahiko nuke, egindako lana Lazkao eta lazkaotarren onurarako izan dela sentitu, alegia.  Lazkaoren garapena eta herritarren ongizatea izan dira eta izango dira beti gure lehentasun nagusia eta hori lortze aldera aurrera pausoak eman izanak balioa emango dio egindako lan eta esfortzu guztiari. Era berean, lerro hauek aprobetxatu nahi nituzke Lazkaoko herritarrei eskerrak emateko Udalari eta udalerriari dagokien guztiak parte-hartzeagatik. Hobetzeko iradokizunak jasotzen ditut egunero, eta horrek agerian uzten du lazkaotarrek beren herriarekiko duten interesa eta inplikazioa. Inplikazio hori gabe ezinezkoa izango litzateke Lazkao hobetzen jarraitzea; beraz, nik eta Udalak esan nahi dizuegu: ESKERRIK ASKO".

## «El bienestar de las y los lazkaotarras es el eje central de nuestro trabajo; todos los proyectos que estamos impulsando están orientados a ofrecer a la ciudadanía una buena calidad de vida y nuevas oportunidades»

**Un año después de tu nombramiento, manifestaste que todos los días estabas aprendiendo a ser alcalde. ¿Cómo te encuentras ahora?**

El último año no ha sido nada fácil, pero me encuentro fuerte y con muchas ganas de seguir trabajando por y para las y los lazkaotarras. Hemos tenido que tomar decisiones difíciles para hacer frente a la Covid-19, y seguro que no hemos acertado en todo, pero la situación sanitaria es cada vez mejor, y eso nos va a permitir acelerar a nuestro Plan de Legislatura. En el último año la prioridad ha sido la garantía del bienestar de la ciudadanía al 100%, y aunque la dirección de nuestro proyecto sigue siendo la misma, hemos dedicado todos nuestros esfuerzos a proteger a las y los lazkaotarras. Poco a poco, estamos dirigiendo de nuevo el foco a la normalidad y estamos encauzando los proyectos de futuro de Lazkao: promoción económica, accesibilidad, sostenibilidad, servicios sociales... todo ello situando a la persona como eje central y sin dejar de lado los proyectos estratégicos de legislatura.

**¿Cómo es tu día a día? ¿Cómo te organizas en el trabajo?**
Mis días son bastante diferentes los unos de los otros. Trato de conciliar al máximo la vida personal y profesional y aprovechar todos los momentos. Soy un hombre muy familiar y cuido mucho ese aspecto. Pero al mismo tiempo, mi equipo y yo estamos trabajando para cumplir el compromiso que adquirimos con las y los lazkaotarras en 2019, y lo estamos consiguiendo. Estamos cumpliendo con nuestra palabra, que es mi principal objetivo. Soy lazkaotarra y estoy muy orgulloso de mi municipio y desde el Ayuntamiento trabajamos para mantener eso, desde la humildad y en colaboración con la ciudadanía; porque, al fin y al cabo, Lazkao es el municipio de todas y todos.



**Al comienzo de la legislatura completasteis el Plan estratégico 2019-23. ¿En qué punto se encuentra?**
En total completamos el plan de legislatura dentro de 4 objetivos estratégicos, con más de 60 proyectos. Fuimos valientes, pero lo hemos encaminado en buena dirección. El Covid-19 ha supuesto un punto de inflexión, y aunque hemos mantenido la guía establecida por el plan de legislatura, en marzo de 2020 reorientamos el foco para responder a la situación, y ahora, poco a poco, a medida que la situación va mejorando, estamos activando proyectos para construir el futuro de Lazkao. Tenemos en marcha todos los proyectos recogidos en el Plan de Legislatura, con un grado de cumplimiento en torno al 60%. Terminarlos todos para el final de la legislatura será difícil, ya que muchos de ellos son proyectos plurianuales, de gran inversión, como la reforma del Polideportivo Municipal Joxemiel Barandiaran o la II. Fase de las obras de reurbanización del polígono Hiribarren-Ibabe, pero sí que estarán todos en marcha y a muy buen ritmo.

**En él se detalla que el bienestar de la ciudadanía es prioritario.**
El bienestar de las y los lazkaotarras es el eje central de nuestro trabajo. El Ayuntamiento trabaja por y para ello y todos los proyectos que estamos impulsando están orientados a ofrecer a la ciudadanía una buena calidad de vida y nuevas oportunidades. La protección social, la garantía de una vida digna, y ofrecer oportunidades en todos los ámbitos son la base de nuestro Plan de Legislatura. Invertimos en la ciudadanía.

> *"Tenemos en marcha todos los proyectos recogidos en el Plan de Legislatura, con un grado de cumplimiento en torno al 60%".*

**Ha sido una mitad de legislatura marcada por la Covid-19.**
Sí, sin duda. Como he mencionado antes, a los pocos meses de comenzar la legislatura llegó la pandemia, lo que nos ha obligado a tomar duras medidas. Junto con el confinamiento, se impulsaron dinámicas y servicios de apoyo a la ciudadanía, así como medidas de fomento para paliar el impacto de la pandemia en los diferentes sectores (hostelería, comercio...). Proteger, mantener y fomentar. Nos dedicamos a ello. Estamos mejor y estaremos mejor. Estamos trabajando sobre ese escenario. Debemos construir con ilusión y esperanza el futuro de Lazkao.

**¿Qué previsiones tenéis a nivel económico?**
La situación va mejorando. La tasa de paro, en Lazkao y en la comarca, no aumentó demasiado y estamos muy cerca de los datos de empleo previos a la pandemia. Sin embargo, los sectores han estado tocados, especialmente la hostelería o el comercio, y hemos ayudado y seguiremos haciéndolo. Así, para apoyar y reforzar el comercio local, la hostelería y los servicios, se han llevado a cabo campañas de bonos de compra, bonificaciones, Goierriko Azoka... entre otras, y se ha aprobado el programa Berrabiarazi Industria, dirigido a las PYMEs, emprendizaje y servicios: proyectos Indargune y Giginnova, jornadas de formación y sensibilización para impulsar la internacionalización... en colaboración con Goieki.

**¿También estáis realizado diversos proyectos de accesibilidad?**
Queremos garantizar la accesibilidad de la ciudadanía, hacer un municipio más sostenible, y al mismo tiempo, por ejemplo, en Ibabe-Hiribarren, ofrecer un entorno atractivo para las empresas con el fin de impulsar oportunidades de empleo. Ahora estamos de lleno en Ibabe-Hiribarren, pronto empezaremos Mikelar y el camino trasero del Ayuntamiento, también se han llevado a cabo renovaciones en los barrios de Santa Magdalena, San Prudencio y San José, anteriormente hicimos Elosegi Kalea, y estamos trabajando en otros muchos trabajos. Nuestro objetivo es un Lazkao accesible, sostenible y agradable.

**Dice que quieren apostar por un municipio más sostenible**
Queremos impulsar un futuro verde. Dentro del plan municipal de Energía, se ha realizado una importante inversión en alumbrado LED y para estudiar y decidir la instalación de paneles solares en los edificios municipales, el Ayuntamiento tiene en marcha un proyecto para su ejecución en 2022. Sin olvidar el ámbito rural: se ha llevado a cabo el despliegue del alumbrado Led en la zona rural, llegando a las zonas rurales de Gaztaiñaundi, Izar Baso e Intxausti y mejoras en la red de abastecimiento de agua.

**¿De cara al futuro, qué proyectos tenéis entre manos?**

En un futuro próximo, el polígono industrial de Kanpandegi es un proyecto muy importante, que se prevé culminar en 2021, y que será un espacio para el arraigo empresarial y la creación de empleo de calidad en Lazkao. También la reforma del polideportivo Joxemiel Barandiaran, que se realizará en diferentes fases y que tenemos como objetivo comenzar en 2022. Y también veo necesario realizar un estudio de las infraestructuras culturales del municipio (Kultur Etxea, biblioteca...) adaptándolas a las necesidades de las y los lazkaotarras.

**¿Qué tipo de Lazkao imaginas para el final de la legislatura?**
Al final de la legislatura me gustaría sentirme orgulloso del trabajo realizado a lo largo de estos cuatro años y ver que todo lo que hemos llevado a cabo ha redundado en beneficio para Lazkao y las y los lazkaotarras. El desarrollo de Lazkao y el bienestar de la ciudadanía han sido y serán siempre nuestra principal prioridad y haber avanzado en la consecución de ese objetivo hará que todo el trabajo y el esfuerzo realizados merezcan la pena. Asimismo, quisiera aprovechar estas líneas para agradecer a la ciudadanía de Lazkao su participación en todo lo concerniente al Ayuntamiento y al municipio en general. Recibo sugerencias de mejora a diario, lo que deja claro el interés e implicación de las y los lazkaotarras hacia su municipio. Sin esta implicación sería imposible seguir mejorando Lazkao, por lo que yo y el Ayuntamiento queremos decirles: GRACIAS ".

# 2019-23 LEGEALDI PLANEAN JASOTAKO PROIEKTU GUZTIAK, ABIAN

## TODOS LOS PROYECTOS RECOGIDOS EN EL PLAN DE LEGISLATURA 2019-23, EN MARCHA

**4**
HELBURU ESTRATEGIKO
OBJETIVOS ESTRATÉGICOS

**15**
ESTRATEGIA
ESTRATÉGIAS

**63**
LAN-ILDO
LÍNEAS DE TRABAJO




### HERRI BIZIA, AUKERAK ETA KALITATEZKO ZERBITZUAK ESKAINTZEN DITUEN HERRIA

- Elkartegintza sustatu
- Jarduera ekonomikoa lagundu eta sustatu
- Azpiegitura egokiak eskaini
- Landa garapena bultzatu
- Kalitatezko zerbitzuak eskaini










### UN PUEBLO SOLIDARIO, UN PUEBLO QUE NO DEJE A NADIE ATRÁS

- Un pueblo sano y activo
- Proyectos a favor de la juventud
- Inclusión
- Igualdad








### HERRI EUSKALDUNA

- Euskararen erabilera bultzatu

### UDAL KUDEAKETA ERAGINKORRA





# Ibabe-Hiribarren birmoldatzeko lanak, aurreratuta

Proiektuaren aurrekontua 772.920,70€koa da eta lanak irailean amaitzea aurreikusi da.

Aurreratuta daude Ibabe-Hiribarren eraberritzeko lanak. Proiektuaren aurrekontua 772.920,70 €-koa da eta lanak irailerako amaitzea aurreikusten da.

Berritze lanek Hiribarren kalearen berrurbanizazioa dute helburu, hain zuzen Senpere biribilgunetik aipatu kaleko 20 zenbakiraino. Esku-hartze eremuak 6.596 m2 ingurukoko azalera du eta obraren funtsa, Hiribarren kalea berritzean datza, bertako zoladura hobetuz eta egungo azpiegiturak berrituz.

Gauzak horrela, lanen bitartez zoladura berri batez hornitu nahi da kalea, horretarako egungo diseinuan hainbat aldaketa eginez, horien artean, ibilgailuen zirkulazioaren hobekuntza, oinezkoen zirkulazio zein irisgarritasunaren hobekuntza eta aparkaleku kopuruaren handitzea. Mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako 4 aparkaleku ere izango dira.

Bestalde, kaleko hainbat azpiegitura berritu edota egokituko dira, hain zuzen, saneamendu sareari, ur-hornidura sareari eta argiteriari dagozkienak.

**Kepa Zubiarrain, alkatea:**

*Lazkaoren etorkizunerako proiektua da: enpresentzat ekosistema erakargarri bat sortu eta enplegua sustatzea, irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzea eta lazkaotarrei herri atsegina eta azpiegitura egokiak dituena eskaintzea*



El presupuesto total del proyecto es de 772.920,70 € y se prevé que los trabajos finalicen para septiembre.

# La remodelación integral de Ibabe-Hiribarren, a buen ritmo

El objeto del Proyecto es la reurbanización de la calle Hiribarren desde la rotonda de Senpere hasta el número 20 de Hiribarren kalea. El presupuesto total del proyecto es de 772.920,70 € y se prevé que los trabajos finalicen para septiembre.

En ámbito de intervención abarca una superficie de 6.596 m2 aproximadamente. La intervención consiste en la reurbanización de Hiribarren kalea renovando toda la pavimentación de las infraestructuras existentes.

Se trata, de dotar a la calle de una nueva pavimentación, realizando varias mejoras en el diseño de la misma que se pueden resumir en mejoras en la circulación rodada, mejoras en la circulación y accesibilidad peatonal y aumento en el número de aparcamientos.

Por otro lado, se renovarán o adaptarán varias de las infraestructuras de la calle, correspondientes a la red de saneamiento, abastecimiento de agua y alumbrado.

**Kepa Zubiarrain, alcalde:**

*Es un proyecto de futuro para Lazkao: crear un ecosistema atractivo para las empresas y fomento del empleo, y garantizar la accesibilidad, movilidad, ofrecer un municipio agradable y con las infraestructuras adecuadas para la ciudadanía*





# Udaletxe atzeko bidea urbanizatzeko lanak lizitaziora atera ditu Lazkaoko Udalak

Aipatu bidea udaletxeko iparraldeko fatxadan kokatzen da, hain zuzen San Benito ikastolaren San Prudentzio eraikina eta Haurreskolaren aurrean. Elosegi kaleko zubitik Euskadi Enparantzara joateko tarteko kalea.

Lazkaoko Udalak kalea berritu eta urbanizatzeko proiektua landu du eta une honetan lizitazio prozesuan dago, 169.935,12 euroko oinarrizko aurrekontuarekin (BEZ kanpo). Asmoa da urbanizazio lanak uda sasoian burutzea, ikastola zein haurreskola itxita egongo direla aprobetxatuz. Obrak bi hilabetetan amaituta izatea aurreikusi du Udalak. Horrela, egingo diren lanen artean, kale osoko galtzada berritu eta altxatu egingo da, egungo espaloien arrasean gera dadin eta udaletxeko iparraldeko fatxadako espaloia ere guztiz berrituko da. Horrekin batera euri uren saneamendu sarea berrituko da.

## Los trabajos de urbanización de la calle trasera del Ayuntamiento salen a licitación

La calle está situada frente al acceso de la haurreskola y el edificio San Prudencio de la ikastola San Benito, por lo que es un ámbito que soporta mucha afluencia peatonal.

El Ayuntamiento ha elaborado el proyecto de reurbanización de la zona, que, en estos momentos, se encuentra en fase de licitación, con un presupuesto de 169.935,12 euros (sin IVA). La previsión es que dichos trabajos se lleven a cabo durante el verano, aprovechando el cierre de ambos centros escolares con una duración de dos meses.

De este modo, los trabajos de urbanización de la calle recogen la elevación de la calzada en toda la superficie afectada, para que todo el ámbito quede enrasado con las aceras existentes y también se reconstruirá la acera situada en la fachada norte del Ayuntamiento. Asimismo, se renovará también la red de saneamiento de pluviales,

## Mikelar auzoko urbanizazio lanak ere gertu

Urteko bigarren seihilekoan egitea aurreikusten da, hiru hilabeteko iraupenarekin, eta 169.739,66 euroko aurrekontua du.

Mikelar auzoko obrek, beraz, hobekuntzak aurreikusten dituzte mugikortasunean eta irisgarritasunean, baita azpiegituretan ere. Hain zuzen espaloiak, lurzorua eta azpiegiturak hobetuko dira auzoko 6 eta 7 atarietako eremuan.

Euri-uren eta ur zikinen saneamendu-sarean kaltetuta dauden hodiak aldatuko dira eta ur-hornidura sarea berrituko da. Gainerako azpiegiturak berdin mantenduko dira, berrituta eta egoera onean baitaude. Horrez gain, etxebizitzen artean bistan dauden kableak lurperatu egingo dira.

## La renovación del barrio Mikelar, más cerca

El Consistorio prevé que dichas obras se lleven a cabo en el segundo semestre del año, con una duración de tres meses, con un presupuesto de 169.739,66 euros.

Las obras del barrio de Mikelar contemplan, por tanto, mejoras a nivel de movilidad y accesibilidad, así como de infraestructuras, en concreto las aceras, el asfaltado del vial y las infraestructuras del entorno de los bloques 6 y 7.

Para ello, se ensancharán las aceras hasta una anchura de 2 metros y se sustituirán las actuales infraestructuras de abastecimiento de agua, y se soterrarán los cables de comunicación existentes.



# LABURRAK






## 624 ZAKU KONPOST BANATU DIRA LAZKAON SASIETA MANKOMUNITATEAREN 'KALITATEZKO KONPOSTA ZURI ESKER' KANPAINAREN BAITAN

Sasieta mankomunitateak abian jarri duen "Kalitatezko konposta zuri esker" kontzientziazio kanpainaren baitan kokatu da ekimena.
Euren etxebizitzetan egunero hondakinak txukun bereizten dituzten pertsona guztiei eskerrak emateko modua dela adierazi dute Mankomunitateko ordezkariek: "Lan isil horrek mankomunitatean batez beste %76ko gaikako bilketako indizea lortzera eraman gaitu. Indize hau oso altua da, Gipuzkoak 2019-2030 Hondakin planean 2030 urterako onartu berri duen %70eko birziklatze helburua gainditzen du".

## SE REPARTEN 624 SACOS COMPOST EN LAZKAO EN EL MARCO DE LA CAMPAÑA 'COMPOSTAJE DE CALIDAD GRACIAS A TI' DE LA MANCOMUNIDAD DE SASIETA

La iniciativa se enmarca en la campaña de concienciación "compost de calidad gracias a ti" que ha puesto en marcha la Mancomunidad de Sasieta.Los representantes de la Mancomunidad señalan que es una forma de agradecer a todas las personas que diariamente separan de forma ordenada los residuos en sus viviendas: "Este trabajo silencioso nos ha llevado a alcanzar un índice de recogida selectiva del 76% de media en la mancomunidad. Este índice es muy alto, supera el objetivo de reciclaje del 70% que Gipuzkoa acaba de aprobar en el plan de residuos 2019-2030 para el año 2030 ".

## HERRIAREN ETA HERRI INGURUAREN ZAINTZA ETA MANTENUA BERMATZEKO BIDE ERTZ-GARBIKETA LANAK EGIN DITU LAZKAOKO UDALAK

Besteak beste, Hirutxikitik Umarkira doan oinezko bidea, Arizti parketik Arramandi baserrirainokoa edo Hirubidetik Ertzilera doana garbitu dira, baita Lazkaomendi, Zubierreka poligonoa eta Imaz baserriko eremua ere. Horrez gain, Lartxaitik Albitxurainoko zatia egin da aurten lehen aldiz. Lan horien helburua, herriaren eta herri azpiegituren zein ingurumenaren zaintza eta mantenua bermatzea da, lazkaotarrei zerbitzu hobeak dituen herri atsegin eta txukunago bat eskaintzeko.

## EL AYUNTAMIENTO DE LAZKAO REALIZA TAREAS DE DESBROCE PARA GARANTIZAR EL CUIDADO Y MANTENIMIENTO DEL MUNICIPIO Y SUS ALREDEDORES

Entre otras zonas, el Consistorio ha desbrozado los paseos peatonales que van desde Hirutxiki a Umarki, desde el parque Arizti a Arramendi o desde Hirubide a Ertzile, así como la zona de Lazkaomendi, el polígono de Zubierreka y espacios cercanos al caserío Imaz. Además de ello, este año por primera vez también ha realizado tareas de desbroce en el tramo que va desde Lartxai hasta Albitxu. El objetivo de dichas tareas en garantizar el cuidado y mantenimiento del municipio y las infraestructuras municipales, así como del entorno natural que rodea Lazkao con el fin de ofrecer a las y los lazkaotarras un municipio con mejores servicios, más amable, limpio y cuidado.



## HAUR PARKEEN GARBIKETA ETA DESINFEKZIOAREKIN JARRAITZEN DU LAZKAOKO UDALAK

Lazkaoko Udalak herriko haur parkeak desinfektatzen jarraitzen du. Covid-19aren pandemiaren ondoriozko etxeratzearen ondoren (2020ko martxoa), erabilgarri zeudenetik burutzen ditu garbiketa zerbitzuak desinfekzio lanak, herriko beste hainbat txoko eta esparrutan burutzen diren eran. Herritarren segurtasuna eta osasuna du jomuga Udalak aktuazio honekin.

## EL AYUNTAMIENTO DE LAZKAO CONTINÚA CON LA LIMPIEZA Y DESINFECCIÓN DE LOS PARQUES INFANTILES

El Ayuntamiento de Lazkao sigue desinfectando los parques infantiles de la localidad. Tras el confinamiento de marzo de 2020 por pandemia del Covid-19, lo operarios de limpieza están llevando a cabo ininterrumpidamente las tareas de desinfección de los parques infantiles, tal y como se llevan a cabo en otros rincones y recintos de la localidad. El Consistorio tiene como objetivo garantizar la salud y la seguridad de la ciudadanía con esta actuación, especialmente de los más pequeños.





## SANTA MAGDALENA KALEAN HAINBAT ERABERRITZE LAN BURUTU DITU UDALAK

Lazkaoko Udalak herria eraberritu eta herritarren mugikortasuna erraztu eta irisgarritasuna hobetzeko lanekin aurrera dihardu. Ibabeko eraberritze integralaren edota gutxi barru ekingo zaien Mikelar kaleko edota Udaletxe atzeko kaleen berrurbanizazioekin batera, beste hainbat aktuazio ere burutu dira, esaterako, Santa Magdalena kalean. Zehazki, Santa Magdalena kaleko 4. zenbakian atari pareko espaloia zabaldu da, lehen zeuden harmailen ordez bi eskilara sortuz eta korten altzairuzko lorontzi batzuk jarriz. Helburua ingurua txukundu eta auzotarren irisgarritasuna bermatzea izan da. Aparkaleku bat gehiago ere irabazi da. Horrez gain, bertan dagoen jardinari zintarria aldatu zaio korten altzairuzko bat jarriz.

## EL AYUNTAMIENTO LLEVA A CABO VARIAS MEJORAS EN LA CALLE SANTA MAGDALENA

El Ayuntamiento de Lazkao prosigue con las obras de reforma del municipio y mejora de la movilidad y accesibilidad de la ciudadanía. Junto a la reforma integral de Ibabe o las reurbanizaciones de las calles Mikelar o la parte trasera del Ayuntamiento que se acometerán en breve, también se han llevado a cabo otras actuaciones, como por ejemplo en la calle Santa Magdalena.

En concreto, en el número 4 de la calle Santa Magdalena se ha ampliado la acera, creando dos escaleras en lugar de las gradas que existían anteriormente y colocando unas macetas de acero. El objetivo ha sido adecentar la zona y garantizar la accesibilidad de las y los vecinos. También se ha ganado un aparcamiento más. Además, se ha cambiado el deteriorado bordillo del jardín por uno de acero corten.

## LAZKAOKO UDALAK HERRITARREK ZEIN ERAGILEEK 2021-24 EUSKARA PLAN BERRIA LANTZEKO LEHEN FASEAN IZANDAKO PARTE-HARTZEA ESKERTU DU

Lazkaoko Udalak, Emun aholkularitza enpresaren gidaritzapean, abian jarri du 2021-24 Euskararen Plan Estrategikoa lantzeko prozesua. Prozesu eta Plan hori, baina, herritarren eta euskara eragileen laguntza eta parte-hartzearekin osatzen ari da Udala.

“Planaren bitartez, herritarrekin elkarlanean datozen lau urteetako estrategia eta helburuak finkatu nahi ditugu, guztion erronka eta lana baita gure hizkuntza babestu eta honen erabilera indartzen jarraitzea, Lazkaok herri euskalduna izaten jarrai dezan eta euskara izan dadin herriko hizkuntza nagusia”, azaldu dute.

## EL AYUNTAMIENTO DE LAZKAO AGRADECE LA PARTICIPACIÓN DE LA CIUDADANÍA Y AGENTES EN LA PRIMERA FASE DE ELABORACIÓN DEL NUEVO PLAN DE EUSKERA 2021-24

El Ayuntamiento de Lazkao, en colaboración con la consultora Emun, ha puesto en marcha el proceso de elaboración del Plan Estratégico del Euskara 2021-24. Este proceso y Plan, sin embargo, se está completando por el Ayuntamiento con la colaboración y participación de las y los ciudadanos y agentes de euskera.

"A través del plan, queremos fijar la estrategia y los objetivos de los próximos cuatro años en colaboración con la ciudadanía, porque el reto y el trabajo de todos es proteger nuestra lengua y seguir potenciando su uso, para que Lazkao siga siendo un pueblo euskaldun y el euskera sea la lengua principal del municipio", explican.

# Energia eraginkortasunaren bidean, 276 argi LED sistemara pasako ditu Lazkaoko Udalak herriko 6 gunetan

***LED sistemara egingo den aldaketari esker, egungo kontsumoarekin alderatuta %65eko aurrezkia lortuko da aipatu eremuetako kale argiterian. Argiteria aldaketa hain zuzen erdigunean, Areson, Gurutzen, San Inazion, Elosegi, Uhaitz eta Antzalde kaleetan burutuko ditu.***

Energia eraginkortasunaren bidean lanean jarraitzen du etengabe Lazkaoko Udalak, horretarako, besteak beste, egungo kale-argiztapena LED teknologiara aldatuz.

Ildo horretan, legealdi honetan zehar herriko hainbat gunetan aldatu ditu argiak, besteak beste, Mikelar kalean, frontoi inguruan, Uhaitz 1ean, Plazan, Aresoko aparkalekuan, Gurutze eta Zubizkiza auzoetan, San Prudentzio auzo atzean, Agerre baserritik Izarbasora, edota Ertzile bidetik Ertziltxo baserrira, eta egun, exekuzio fasean Ertziltxotik Intxausti baserrirako bidea, azken aldaketa hauek, Olaberriako Udalarekin elkarlanean.

Ildo beretik, oraingoan, herriko beste 6 gunetan burutuko du argiteria aldaketa hori, hain zuzen, erdigunean, Areson, Gurutze, San Inazion, Elosegi, Uhaitz eta Antzalde kaleetan. 6 eremu horien artean, guztira 276 argi pasako ditu Udalak LED teknologiara, egungo kontsumoarekin alderatuz %65eko aurrezkia lortuz.

Lanak ekaina amaieran hastea eta, bataz-beste bi hilabeteko epean amaitzea aurreikusi du Udalak. Aurrekontua 101.765,51 eurokoa izango da, BEZ barne.

Herriko argiteria publikoa hobetzeaz haratago, aldaketa guzti horien helburua da Lazkaok jasangarritasunaren eta energia eraginkortasunaren bidean aurrera egiten jarraitzea da, herri berdeagoa, ekologikoagoa, ingurumenarekin arduratsuagoa eta, aldi berean, seguruagoa ere izan dadin.



**Lanak ekaina amaieran hastea eta, bataz-beste bi hilabeteko epean amaitzea aurreikusi du Udalak. Aurrekontua 101.765,51 eurokoa izango da, BEZ barne.**



# En el camino hacia la eficiencia energética, el Ayuntamiento de Lazkao sustituirá 276 luminarias por unas nuevas de sistema LED en 6 zonas del municipio

***El cambio al sistema LED permitirá un ahorro del 65% respecto al consumo actual en el alumbrado público de las citadas zonas. El cambio de las luminarias se realizará en el centro urbano, Areso, Gurutze, San Ignacio, Elosegi, Uhaitz y Antzalde.***

El Ayuntamiento de Lazkao, en su apuesta por la eficiencia energética, continúa trabajando para mejorar el alumbrado público del municipio, cambiando para ello, las actuales luminarias por otras nuevas de tecnología LED.

En este sentido, a lo largo de esta legislatura ha cambiado ya el alumbrado público de diferentes zonas del municipio, entre otras, la calle Mikelar, la zona del frontón, Uhaitz 1, la Plaza, el aparcamiento de Areso, los barrios de Gurutze, Zubizkiza y la parte trasera del barrio de San Prudencio, desde el caserío Agerre a Izarbaso o también las luminarias del camino de Ertzile hasta el caserío de Ertziltxo,y actualmente en ejecución desde Ertziltxo hasta el caserío Intxausti,  estos últimos, en colaboración con el Ayuntamiento de Olaberria.

En la misma línea, en esta ocasión, cambiará el alumbrado de otras 6 zonas del municipio, concretamente las del centro, Areso, Gurutze, San Ignacio, Elosegi, Uhaitz y Antzalde. Entre estas 6 zonas, el Ayuntamiento sustituirá un total de 276 luces por unas nuevas de tecnología LED, logrando así un ahorro del 65% respecto al consumo actual. El Ayuntamiento prevé que estos trabajos comiencen a finales de junio y finalicen, en un plazo aproximado de dos meses. El presupuesto será, asimismo, de 101.765,51 € IVA incluido.

Más allá de la mejora del alumbrado público, el objetivo de todos estos cambios es que Lazkao siga avanzando hacia la sostenibilidad y la eficiencia energética, para que de este modo sea un municipio más verde, ecológico, responsable con el medio ambiente y a la vez más seguro.





**El Consistorio prevé que las obras comiencen a finales de junio y finalicen en un plazo de dos meses.**
**El presupuesto es de 101.765,51 €, IVA incluido.**








# Lazkaoko Udalak 300.000 euro mugituko ditu 2021ean merkatariei, zerbitzuei eta ostalariei laguntzeko,Covid-19ren ondorioen aurrean

**Covid-19aren aurreko osasun-neurriak betetzearen ondoriozko gastuetan** laguntzeko diru-laguntzak jarraipena izan du 2021ean. Lagundutako gastuak: gela, musukoak... Eskaerak egiteko epea uztailaren 15era arte egongo da zabalik.

La subvención para contribuir a los **gastos derivados del cumplimiento de las medidas sanitarias ante el Covid-19** ha tenido continuidad en 2021. Gastos apoyados: gel, mascarillas... El plazo de solicitud estará abierto hasta el 15 de julio.

**Industria-ehuna babestea eta sustatzea:** GOIEKIrekin lankidetzan, Udalak Lazkaoko ekonomia- eta industria-sarearen egoeraren diagnostikoa egin du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrabiarazi programaren barruan. Diagnostiko horren ondoren, ekintza-plana zehaztu eta gauzatzeko diru-laguntza bultzatuko da.

Apoyo y fomento del tejido industrial: en colaboración con GOIEKI, el Ayuntamiento ha realizado un diagnóstico de la situación del tejido económico-industrial de Lazkao tras la pandemia de Covid-19 dentro del programa Berrabiarazi de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Tras este diagnóstico se apoyará e impulsará una línea de ayuda para la definición y ejecución del plan de acción.

2021eko ekitaldian, jarduerak berrasmatzeko eta Covid-19ak sortutaji egoera berrira egokitzeko inbertsioak ere diruz lagundu dira: 7 eskaera jaso dira eta guztiak onartu dira, 11.294 euroko guztizko laguntzarekin. Laguntza hori, hein handi batean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak finantzatzen du.

2020an, deialdi honen aurreko ediziorako eskaera aurkeztu zuten 26 establezimenduen artean 29.000 euro baino gehiago banatu ziren.

Durante el ejercicio 2021 también se han subvencionado inversiones para reinventar actividades y adaptarse a la nueva situación derivada del Covid-19: se han recibido 7 solicitudes y todas ellas han sido admitidas, con una ayuda total de 11.294€. Esta ayuda está financiada en gran parte por el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
En 2020, entre los 26 establecimientos que presentaron solicitud para la anterior edición de esta convocatoria, se repartieron más de 29.000 euros.

## HARTUTAKO NEURRIAK
## MEDIDAS ADOPTADAS

*2020ko maiatzean abian jarritako Suspertze Planak 250.000 euro mobilizatu zituen hainbat ildoren bidez: tasetan hobariak, Covid-19aren aurrean inbertsioak egiteko diru-laguntzak eta kontsumoa bultzatzeko neurriak.*

Lazkaoko Udalak merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza sustatzeko eta suspertzeko plan partekatua du 2021erako. Covid-19 pandemiaren harira 2020ko maiatzean abian jarritako Suspertze Planaren bilakaera da. Plangintza herriko ostalariekin, zerbitzuetako profesionalekin eta merkatariekin partekatu da. Guztira 300.000 euro inguru aktibatzea aurreikusi dute. Laguntzak hiru alderdi nagusitan banatuko dira: industria, baserritar-ekoizleak, eta merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak.

# El Ayuntamiento de Lazkao moviliza 300.000 euros en 2021 para ayudar a comerciantes, servicios y hosteleros frente a los efectos del Covid-19

*El Plan de Reactivación puesto en marcha en mayo de 2020 movilizó 250.000 euros a través de diferentes líneas: bonificaciones en las tasas, subvenciones para apoyar las inversiones ante el Covid-19 y medidas para impulsar el consumo.*

El Ayuntamiento de Lazkao cuenta con un plan compartido de fomento y reactivación del comercio, los servicios y la hostelería para 2021. Es la evolución del Plan de Reactivación puesto en marcha en mayo de 2020 con motivo de la pandemia del Covid-19. La planificación ha sido compartida con hosteleros, profesionales y comerciantes de la localidad.
En total está previsto activar alrededor de 300.000 euros. Las ayudas se destinarán en tres principales vertientes: industria, baserritarras-productores, y comercio, hostelería y servicios de la localidad.

**Terrazen azalera-muga handitzeko erabakiak** ere jarraipena du 2021ean. Betiere, bizikidetzari eta hirigintzari buruzko gutxieneko arauak betearaziz.

La decisión de ampliar el límite de superficie de las terrazas también tiene continuidad en 2021. Siempre haciendo cumplir las normas mínimas de convivencia y urbanismo.

**Ostalaritza, hobariak tasetan.** 2021ean, ez da mahai eta aulkien, toldoen, errotuluen eta zaborren tasarik ordainduko, ezta uraren zati finkorik eta kanonik ere. Bestalde, ur-kontsumoaren tarifa % 40 murriztu da.

Hostelería, bonificaciones en tasas durante 2021, no se abonará tasa de mesas y sillas, toldos, rótulos y basuras, ni la parte fija ni el canon del agua. Por otro lado, la tarifa del consumo de agua se reducirá un 40%.

**Kontsumoa sustatzeko kanpainak:** alde batetik, dagoeneko egin da udaberriko merkataritza-bonuen kanpaina: 2.500 erosketa-bonu, 30 euroren truke, 40 euroren erosketa-balioa. 25.000 euroko inbertsioa guztira, 100.000 euro mobilizatzeko.

Campañas de promoción del consumo: por una parte, ya se ha realizado la campaña de bonos comerciales de primavera: 2.500 bonos de compra al precio de 30€ con un valor de compra de 40€. Una inversión total de 25.000€, para movilizar 100.000€.

**Negozio berriak irekitzeko laguntza indartu da:** Udalak 500 euro jarriko ditu irekiera berrietan, % 20 egokitze-gastuetan, 1.250 euroko mugarekin, eta 500 euro euskarazko errotulazioak sustatzeko.

Se ha reforzado el apoyo a la apertura de nuevos negocios: el Ayuntamiento aportará 500 euros en nuevas aperturas, el 20% en gastos de acondicionamiento, con un límite de 1.250 € y 500 euros para fomentar las rotulaciones en euskera.

Ildo beretik, merkataritza-bonuekin batera, **baserritar ekoizleen produktuak merkaturatzeko eta lehen sektorean mugimendu ekonomikoa sortzeko helburuarekin**, Udalak lehen aldiz sektore horretarako 200 bonu unitate jarri ditu salgai. Horiek 20 eurotan erosi daitezke eta 35 euroko erosketa-ahalmena eskaintzen dute Baserritar Ekoizleen Gidan sartuta dauden 5 baserritarrei erosketak egin ahal izateko. Bonuak Lazkaoko udaletxean daude oraindik salgai eta herritar bakoitzak 5 bonu erosi ahal izango ditu gehienez. Kanpaina azaroaren 30era arte luzatuko da.

En la misma línea, junto a los bonos comerciales, con el objetivo de comercializar los productos de los productores baserritarras y generar movimiento económico en el sector primario, el Ayuntamiento ha puesto en venta por primera vez 200 unidades de bonos destinados a dicho sector. Estos compran a 20 euros y ofrecen un poder de compra de 35 euros para poder realizar las compras a los 5 baserritarras incluidos en la Guía de Productores Baserritarras. Los bonos aún están disponibles en el Ayuntamiento de Lazkao entre las 8:00 y las 18:00 horas y cada ciudadano podrá adquirir 5 bonos. La campaña, además, se prolongará hasta el 30 de noviembre.

# 198 haurrek eman dute izena Lazkaoko Udaleko udako aisialdi zerbitzuan eta 664k kirol ikastaroetan

Ia ekintza guztiak ekainaren 21ean hasiko dira; ekainaren 28an piraguismoa, pelota eta igeriketa ikastaroak. Aisialdi zerbitzuari ekainaren 21ean ekingo zaio ere.

Inoiz baino izen-emate gehiago izan dira aurten Lazkaoko udako kirol ikastaroetan eta udako aisialdi zerbitzuan. Herriko haur eta gazteei zuzenduriko kultur, aisialdi eta kirol eskaintza zabala landu du Udalak, udako oporraldian etxeko txiki zein gaztetxoek Lazkaon zer egiteko aukera andana izan ditzaten.

Aisildi zerbitzuan guztira 198 neska-mutil dira izena eman dutenak, hauetatik 130 goizeko 10:00tatik 13:00tara bitarteko aukeran eta gainontzeko 68ak 9:00tatik 13:00tara bitarteko aukeran. Kirol ikastaroetan, berriz, 664 gaztetxok eman dute izena. Kirol ikastaroetan aukera zabalagoa izanik, izena eman dutenen kopuruak kirolez-kirol ondorengoak dira:

Gaztetxoen jardueretan izan den izenematea ondorengoa izan da:

- Bodytrainig gazten: 25
- Ziklo indoor gazten: 21

Ia ekintza guztiak ekainaren 21ean hasiko dira; ekainaren 28an piraguismoa, pelota eta igeriketa ikastaroak. Aisialdi zerbitzuari ekainaren 21ean ekingo zaio ere.






Kiroldegiko ikastaroek harrera ona izan dute eta martxan dira gehienak, osasun eta segurtasun neurri guztiak betez.





# En marcha los cursos del polideportivo, cumpliendo las medidas de seguridad para delimitar la Covid-19

Este año ha habido más inscripciones que nunca en los cursos deportivos y en el servicio de ocio de verano de Lazkao. El Ayuntamiento ha elaborado una amplia oferta cultural, de ocio y deportiva dirigida a los niños y niñas y jóvenes de la localidad de cara a las vacaciones de verano.

En el servicio de ocio se han inscrito un total de 198 niños y niñas, 130 de ellos de 10:00 a 13:00 y los 68 restantes de 9:00 a 13:00.

En los cursos deportivos se han inscrito 664 jóvenes. Con un abanico más amplio en los cursos deportivos, el número de inscritos es el siguiente: *(ver gráfica)*





La inscripción en las actividades juveniles ha sido la siguiente:

- Bodytrainig Gazte: 25
- Ciclo Indoor Gazte: 21

Casi todas las actividades comenzarán el 21 de junio; el 28 de junio los cursos de piragüismo, pelota y natación. El servicio de ocio comenzará también el 21 de junio.



## Igerileku estaligabeak, zabalik

Irailak 5a bitartean egongo dira irekita, astelehenetik igandera bitartean. Covid-19ari aurre egiteko neurriak hartu dira, herritarren segurtasuna lehenetsiz.

**Igerilekurako bono aukerak**
Herritarrek bono desberdinak izango dituzte aukeran:

- Banakako heldua . . . . . . . . . 57,85€
- Banakako gaztea . . . . . . . . . 28,75€
- Banakako jubilatu edo pentsioduna . . . . . . . . . . . . 43,30€
- Familiarra . . . . . . . . . . . . . . 84,40€
- Jubilatu edo pentsiodun familiarra . . . . . . . . . . . . . . . . 63,15€

## Las piscinas descubiertas a pleno rendimiento

Permanecerán abiertas hasta el 5 de septiembre, de lunes a domingo. Se han tomado todas las medidas necesarias para hacer frente al Covid-19, priorizando la seguridad ciudadana. El Ayuntamiento invita a todos los lazkaotarras a hacer uso de las piscinas, cumpliendo toda medida preventiva y actuando con responsabilidad.

**Opciones de bono para la piscina**
Los ciudadanos tendrán diferentes bonos a elegir:

- Adulto individual. . . . . . . . 57,85 €
- Joven individual . . . . . . . . 28,75 €
- Jubilado o pensionista individual . . . . . . . . . . . . . . 43,30 €
- Familiar . . . . . . . . . . . . . . . . 84,40 €
- Jubilado/a o pensionista familiar . . . . . . . . . . . . . . . . 63,15 €

**Jarraitu Lazkaoko Udala eta Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegia sare sozialetan!**

---

¡Síguenos en redes sociales!




**Kiroldegia: @LazkaokoKiroldegia**

**Udala: @LazkaokoUdala**